

Belaunaldi arteko zineforuma



Komunikazioa
eta informazioa



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa

Belaunaldi arteko zineforuma

Gogoeta egiteko gai berezi bat aukeratu eta film bat ikusi ostean, gai horri buruzko ikuspegiak trukutzen dira.

1. Erakunde sustatzaileak

Igorreko BHI, Igorreko Udala, Erretiratuen Elkartea eta Bizi Batzordea

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

Institutuko ikasleak eta adinekoen elkarteak

4. Lurralde eremua

Igorre (Bizkaia)

5. Egoera

Amaituta

6. Etiketak

Kultura, belaunaldi artekoa

7. Helburuak

Gaurkotasuneko gai konplexuenei buruzko gazteen eta adinekoen ikuspegiak partekatzea, estamentu bakoitzak besteen pentsatzeko modua errespetatu eta haiengandik ikas dezan.

Ekintza horien helburua adinekoen ikuspegiari buruz gogoeta egitea da, haiengandik eta haiekin ikasteko. Bestalde, adinekoek gazteen portaera eta pentsatzeko modua ezagutuko dute, eta beraien ezagutzak partekatzeko aukera izango dute.

8. Metodologia

Institutuko irakasleek eta IGORRE LAGUNKOIA (BIZI IGORRE) talde eragileak aukeratzen dute urteko gaia eta filma. Horretarako, jorratzen dituzten balioak direla eta interesgarriak izan daitezkeen filmen zerrenda bat erabiltzen dute. Udalak kontratatzen ditu saioa dinamizatzen duten teknikariak, eta kultur etxeko instalazioak erabiltzeko baimena ematen du.

Urte bakoitzean aukeratutako gaiaren arabera, ikasle talde desberdinek parte hartzen dute (2017an hezkuntza indargarria zuten gazteak izan ziren eta *Le llamaban radio* filma ikusi zuten; 2018an, aldiz, batxilergoko Psikologia ikasleak izan ziren eta *A dónde vamos* filma ikusi zuten).

Gaia eta filma urtarrilean aukeratzen dira eta ikasleek eta adinekoek filma ikusten dute, institutuan eta zahar etxean, hurrenez hurren.

Udaberriko goiz batean, dinamizazioaz arduratzen den enpresa baten laguntzarekin, kafe-solasaldi bat antolatzen da iritzia trukatzeko.

9. Alderdi berritzaileak

Sistemaren xumetasuna bera da berrikuntza. Izan ere, edozein establezimenduren eskura dauden elementuei esker, eta inbertsio txiki bat eginda, asko hobetzen da eskainitako zerbitzua eta arreta.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Gazteei ikus entzunezko materiala gustatzen zaienez, haiekin gai bereziak jorratzeko modu erakargarri bat da.